

Hiru pertsona hil dira asteburuan mendian izandako istripuetan

Larunbatean 26 urteko berastegierra hil zen Huescako Pirinioetan, eta herenegun 39 urteko berrobitarra Balerdi mendian; larunbatean 57 urteko txirrindulari bat ere hil zen Zizurkilen // 2

1.682 positibo izan dira Tolosaldean azken astebetean

Gaztelu da positiborik atzeman ez duten eskualdeko herri bakarra; intzidentzia tasa orokorra 6.235ekoa da; COVID ziurtagiriaren kontrako herritarrak kalera atera dira // 5

«Gure iruditerian une zehatzak oso ondo finkatzea da helburua»

GAIZKA ARANGUREN
KOMUNIKATZAILEA

Euskal Herriko historiaren inguruan ariko da kazetari eta komunikatzailea Altzon, lau saiotan; digitalizazioak iruditerian asko eragin duela dio // 3

Peña II.a eta Tolosarentzat izan dira azken jardunaldiko garaipenak

Peña II-a- Albisuk 13-22 irabazi dute Jaka-Mariezkurrenaren aurka, eta Tolosa-Ezkurdiak 18-22 irabazi dute Altuna III.a- Martijaren aurka // 7



TOLOSALDEA TURISMO BULEGO BERRIA

Tolosako Plaza Zaharrean kokatutako bulego berria zabaldu dute; turistentzat «eskuragarriago» dago, eta harrera «hobea eta integralagoa» ematea izango du helburu; Tolosaldeko marka turistiko berria ere sortu dute // 4

IMANOL GARCIA LANDA



**Aurrematrikulazio
epea zabalik
Urtarrilaren 17tik 28ra**

**Aiztondoko
eskola
publikoa**



Txakur jabeei zuzendutako ikastaroa, Iruran

Zakurrei zuzendutako parkea egokitu berri du udalak; lehendabiziko ikastaroa hilaren 20an izango da, goizez eta arratsalde

Erredakzioa Irura

Abenduan, Irurako Etxezarreta kalean kokatuta dagoen zakurrentzako parke berria zabaldu zuen udalak. Egitasmo honek, txakur jabeek zein gainontzeko herritarrek, galdetegi bidez jasotako iritziei erantzuten dio. Udalak nabarmendu duenez bi helburu nagusi bilatzen ditu espazio berri honen egokitzapenarekin: batetik animalientzat aproposa den ingurune bat eskaintzea; eta bestetik, animaliak edozein eremutan aske ibiltzek sortzen dituen ondorioak ekiditea (erasoak, zakur-kakak...). «Pertsonen eta animalien arteko elkarbizitza errazteko borondatea dago atzean», esan dute udal ordezkariak.

Bestalde, udalak animalien heziketarako saioak antolatuko ditu. Kangune zakurren trebakuntzan espezializatutako zen-

troak eskainiko ditu eta lehena, urtarrilaren 20an izango da. *Txakurren heziketa eta elkarbizitza* izenburua eramango du eta Etxezarretako txakur parkean eskainiko da. Bi txanda antolatu dituzte, goizez 11:00etatik 12:00etara, eta arratsalde 16:30etik 17:30era. Doakoa da izen ematea baina partaide kopurua mugatua denez aurrez eman beharko da izena udal-txera deituta edo ingurumena@irura.eus helbidera idatzita.

PILOTALEKUA, ITXITA

Irurako Udaleko zerbitzuetako arduradunek jakinarazi dutenez, kirol anitzetako frontoiaren argiteria aldatu eta berritzeari ekingo diote urtarrilaren 31tik otsailaren 4a arte.

Hori dela eta, epe horretan frontoia itxita egongo da eta ezingo da erabili.



Edukiontzia erreta. ATARIA

Lau edukiontzi erre dituzte larunbat gauean

AMASA-VILLABONA // Lau edukiontzi erre zituzten larunbat gauean Kale Berriko Malkar plaza parean. Kalte materialak nabarmenak izan dira, eta udalak esan du gertakaria onartezina dela eta irmoki salatu du. Era berean, elkartasuna adierazi die kaltetuak izan diren bizilagunei.

Dolu egunak ari dira bizitzen Berastegin eta Berrobin

Mendian izandako istripuetan hiru pertsona hil dira asteburuan; 70 urteko ehiztari bat ere larrialdi zerbitzuek artatu behar izan dute, erori eta min hartu ondoren



Berastegiko udaletxean bandera masta erdian dago, xingola beltz batekin. A. IMAZ

Asier Imaz

Asteburuan ezbehar ugari izan dira mendian, eta horietako hiritan istripuek heriotzak ekarri dituzte. Berastegiko eta Berrobiko udalek hiru eguneko dolua egitea erabaki dute saminak bul-tzatuta.

Larunbatean, Berastegiko 26 urteko mendizale bat hil zen Huescako Pirinioetako Aspe mendian. SOS Aragoiko 112 larrialdi zerbitzuek dei bat jaso zuten 14:25ak inguruan gizonezko bat erori zela esanez. Mendizale talde batek eman zuen abisua, eta berehala jarri ziren bidean Jacako Guardia Zibilaren erreskate taldeko hainbat kide, baita helikoptero bat eta 061eko mediku bat ere. Mendiaren ebakidura batetik behera erori zen gaztea, eta Aragoiko Gobernuak jakinarazi zuenez, erorikoan izandako zaurien ondorioz hil zen berastegiarra.

Igandean, Berrobiko 39 urteko

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

mendizale bat hil zen Amezketa eta Tolosa artean dagoen Balerdi mendian. Erreskatea eguerdian egin zen, 112 larrialdi zerbitzuek inguruan zebilen beste mendizale baten deia jaso eta gero. Balerdi inguruan 50 metroko altueratik erori zen 39 urteko gizonezkoa. Bertara berehala hurbildu ziren osasun talde bat, suhiltzaileak eta Ertzaintzaren mendiko erreskate taldeko kideak helikopteroarekin. Ertzaintzako erreskate taldeko agenteek biktimarra arroka eremu batean aurkitu zuten, eta eroritakoan izandako zaurien ondorioz hil zela jakinarazi zuten.

ZIZURKILEN, BI ISTRIPU

Larunbatean eskualdean beste heriotza bat izan zen mendiari lotuta. 57 urteko txirrindulari bat hil zen Zizurkilgo baso-pista batean, Andatza eta Bekokain artean. Pertsona batek txirrindulari bat erorita topatu zuen eta SOS Deiak zerbitzuari eman zion abisua. Emergentzia zerbitzuak bertaratu eta erreanimazio lanak egin bazituzten ere, medikuak 57 urteko gizonezkoaren heriotza baino ezin izan zuen ziurtatu.

Hurrengo egunean, Zizurkilen bertan, beste istripu bat izan zen mendian. Kasu honetan, ordea,

zauritua artatu eta ospitalera eramatea lortu zuten.

Mendian ehizan zebilela erori eta min hartu zuen 70 urteko gizon batek. Euskadiko Larrialdietako Zerbitzuak agertu ziren lekura ehiztariari laguntzera, eta, azkenean, Ertzaintzaren helikoptero batek Donostiara eraman zuen.

Ertzaintzak jakinarazi zuenez, 09:00ak aldera gertatu zen istripua Ziortza muinoaren eta Andatza mendiaren artean. Gizonezkoak hanka batean min hartu eta hanketako eta eskuetako sentsibilitatea galdu zuen. Suhiltzaileak eta osasun-baliabideak hurbildu ziren lekura zaurituari laguntza ematera. Ertzaintzaren zaintza eta erreskate unitateko helikoptero batek zauritua Donostiako suhiltzaileen parkeko heliportura eraman zuten, eta han zain zuen anbulantzia batek hartu eta osasun-zentro batera eraman zuen.

ANOETAN, TREN ISTRIPIUA

Azken egunetako ezbeharren zerrenda ez da hor bukatzen, ordea. Asteazkenean emakume bat hil zen Anoetako Renferen geltokian, trenak harrapatuta. Istripuaren ondorioz tren zerbitzua etenda egon zen.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Gobernu Batzarrak bi mila eta hogeita bateko abenduaren hamalauan, besteak beste, ondoren jasotzen den erabakia hartu zuen:

Hasierako onespina ematea "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko Urbanizazio Proiektuari.

Espedientea jendaurrean egongo da, HOGEI egunez, alegazioak egin ahal izateko, azken argitaratzea egin eta hurrengo egunetik aurrera. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2022ko urtarrilaren 14ean, 9. alean.

Tolosan, 2022ko urtarrilaren 14ean
Alkatea
Olatz Peon Ormazabal

Asier Imaz – Eneritz Maiz

Gaizka Aranguren Urrotz (Iruñea, 1967) kazetari eta komunikatzaileak Altzon Euskal Herriaren historiaren errepasoa egingo du. Lau saio izango dira, 09:30etik 12:30era; hilaren 22an hasi, eta otsailaren 12an, martxoaren 5ean eta martxoaren 26an izango dira saioak, Batzarremuñon.

Izena emateko azken eguna da biharkoa, eta Altzoko udaletxean edota kultura@altzo.eus helbide elektronikora idatzita egin beharko da. Izena ematearekin batera 20 euro ordaindu beharko da. Saio hauekin Aranguren, batez ere, guztien artean «ongi pasatzea» du helburu, eta gaiaren gainean eztabaidatzea.

Euskal Herriko historiaren errepasoa egitea ez da lan erraza izango, ezta?

Momentu honetan jarri dituzten baliabideak ikusita, eta antolaketa horren polita egin dutela ikusita askoz ere errazagoa gertatuko zaigu.

Zer erakarri zaitu Altzoko gonbidapenetik?

Gure historiaren mugari nagusienei buruzko halako hitzaldiak oso aspalditik eskaini izan ditut; garai batean gehiago orain baino. Azkeneko 20-25 urteetan jardun naiz horretan, eta hain zuzen ere denbora guzti horretan zehar garatu ditudan materialak baliatuko ditut ikastaro honetarako. Gure iragan partekatua mugari nagusienei buruzko hausnarketak Altzoko herritarrekin partekatzea da gehien erakarri nauena.


Lau saiotan azalduko dituzu puntu garrantzitsuenak.

Malgutasunez jokatuko dut saioetan. Jendearen parte hartzea, eta edukiari dagokionez jendearen interesen nondik norakoen arabera ere moldagarriak izango dira. Azken finean, gutxienez azkeneko 2.000 urte hauetako lehenengo mila eta bostehun urteetan bereziki zentratu nahiko nuke, nahiz eta gero hausnarketa bat egin nahi dudana hortik aurrerako mendeekin. Mugari nagusienei buruzko hausnarketa sakona egiteko asmoa daukat, eta halako hamabi kapitulutan zatitutako ikastaroa izango da. Eta hamabi kapitulu horiek lau sailetan banatuta, eta saio bakoitzeko hiru kapitulu moduan izango dira. Saio batean lehenengo bi kapituluekin saio osoa betetzen baldin badugu, hurrengo kapitulua hurrengo saiorako geratuko da. Ez dut ohiko hitzaldi magistral bat emango. Ikus-entzunezko baliabideak izango

«Interes berezia daukat gure iraganari buruzko pertzepzioak entzuteko»

GAIZKA ARANGUREN URROTZ KOMUNIKATZAILEA

Altzoko Udaleko kultura batzordeak Euskal Herriaren historiaren errepasoa egiteko saioak antolatu ditu Gaizka Arangurenekin; lau larunbat goiz izango dira, eta izena emateko epea bihar bukatzen da



IDOIA ZABALETA

ditugu oinarri eta ikus-entzunezko baliabide horiek emango dituzte azalpenik garrantzitsuenak nolabait, eta gero jada hausnarketak izango dira. Ez bakarrik nireak, baizik eta, nik interes berezia daukat jendearen gure iraganari buruzko pertzepzioak entzuteko, elkarren artean horri buruz hausnar dezagun.

Lau larunbat goiz izango dira.

Gauza hauek modu parte hartzailean eta entretenigarrian egingen ez baldin badira pisutsuak bihurtzen dira. Asmoa ez da bata bestearen gainean datu asko pilatzea, ezta gutxiago ere; baizik eta, oso ondo finkatzea gure iruditerian gure iragan konpartitu

horren une zehatzak. Ez urte bat, baizik eta gertakizun zehatz bat, eta historian barna gertakizun zehatz batek, hau da, gertakizun militar, politiko, ezkontza batek edota gertakizun sozial batek zein puntura arte baldintzatzen duen hurrengo garai luze bat. Mugari horiek ondo barnerraztea nahiko nuke, zeren horiek baldintzatu dute hein handi batean gaur egun garena.

Berriro ere Euskal Herriaren historiarekiko jakin-mina piztu al da?

Nik ez dut uste sekula desagertu denik. Azken finean memoria ari gara. Norberaren memoria pertsonala kontu bat da, eta me-

moria partekatua beste bat. Hein handi batean, edozein giza kolektiboren iruditeria osatzen da, besteak beste, baita ere, iragan partekatu horrek baldintzatuta. Zenbait jenderentzako iragan partekatu horrek ez dauka garrantzirik, eta ez du aintzat hartzen bere gaur egungo identitatea, esaterako, osatzerakoan, baina beste jende askok bai. Uste dut jakin-mina sekula ez dela pasatu, eta nire inguruan eta familian, eta uste dut guztioi gertatu zaigula antzeko zerbait, hau da, edozein eztabaidetan, halako gairi buruz, zer garen edo zer ez garen, edo zer izan gaitezkeen edo zer izan nahi dugun horri buruzko eztabaidetan, beti izan da joera iraganean zer izan ginen gogoratze, gaur egun zer garen irakurketari horrek nolabaiteko argudioa emango balio bezala. Horrek ez du zertan horrela izan behar, baina egia da lagundu ohi duela.

Beste era batera esanda, behar gehiago dago?

Nik uste dut behar berdintsua egon dela, baina ni bereziki kezkatuta nago azken aldi honetan, hain zuzen ere, euskal iruditerian gaur egungo digitalizazioak eta batez ere pantailaratzeak duen eraginarekin. Gaur egun edozein giza kolektiboren iruditeria baldintzatzen duen gauza nagusia pantailen bitartez jasotzen ditugun estimuluak dira, eta ikus-entzunezko edukiak dira. Horregatik tematu naiz azkeneko hamarkadetan euskal iruditeriari lagungarri izan da-kizkiokeen ikus-entzunezkoak sortzen. Tartean, gure iragan konpartituari buruz dihardutenak dira, horiek erabiliko ditut ikastaro honetan. Bere garaian *Nafarroa euskal estatuaren historia* liburua egin genuen, eta horretan egindako ikus-entzunezkoetan oinarrituta eskainiko

dut. Interesa badago, eta behar bada, gaur egun, pantailen bitartez behar dugun elikadura horren gosea egon daiteke. Halaber, harrez eskaini behar ditugun edukiak dira, eta horregatik nago horren pozik.

Izan ere, nolabait, azken urteetan pantailetan azaltzen dena ez da existitzen.

Hori da hain zuzen ere. Gaur egun, belaunaldi berriek bereziki, baina denok orokorrean denbora gehiago ematen dugu pantaila bati begira, gurasoen aurpegiari edo lagunaren aurpegiari begira baino. Matematikoki horrela da, eta beraz pantailen bidez jasotzen dugun horrek baldintzatzen du gure sozializazio prozesu guztia, batez ere, txikitik horrela bizi baldin bagara. Gure sozializazio prozesu horretan barnerrazten ditugu emozio ezberdinen arabera erreferente batzuk ala beste batzuk ditugu.

«Ez dut ohiko hitzaldi magistral bat emango. Ikus-entzunezko baliabideak izango ditugu oinarri»

Eta azken finean horiek konfiguratuko dute gure identitatea edo gutxienez gure identitatearen atarira eramango gaituzte. Horregatik dira horren inportanteak, eta horregatik nazio estatuek horrenbesteko garrantzia ematen diote beraien iruditeriaren etengabeko elikatzeari.

Baskoniatik Iruñera kontatuz hasiko zara Altzon.

Erromatar inperioaren garaietatik, hau da, kristo sortu zen garaietatik lehen mila urteak aztertu nahiko nituzke. Hiru zati nabarmen daude. Erromatar inperioa eta bere eragina Euskal Herrian. Ukaezina da oso nabarmena izan zela, eta horren ondorioz euskarak latinetik dituen eraginak, horrekin batera gerora bisigodoen etorrera eta baita Afrikatik etorri zen kulturaren etorrera, eta Iruñeko Erresumaren sorrerara arte. Euskaldun guztiak batzeko gaitasuna izan zuen egitura horretara arte. Hori jada bigarren zatirako utziko dugu. Gero, Iruñeko Erresumaren sorrera eta lehen hazkundera eta hor aztertuko dugu Iruñeko Erresuma horrek bere hasieran zein lurralde ingurumari nolabait kontrolatzen zuen edo non zeukan eragina, eta zein beste euskal lurralde gelditzen ziren kontrol horretatik at oraindik ere. Horixe izango da abiapuntua.



Turistei begirako gune abegikorra sortu dute Plaza Zaharreko 10. zenbakian. I. GARCIA LANDA

«Berehalako neurriak», lan istripuekin amaitzeko

Ikaztegietan lan istripuz hil zen gaztearen heriotza salatzeke elkarretaratzea egin dute Hertell aurrean; Kontseilu Sozialistak elkarretaratzea egin du Tolosan

Erredakzioa

Ikaztegieta / Tolosa

Aurreko asteartean lan istripuz hil zen Amezketako 23 urteko gaztea, eta ostiral eguerdian gehiengo sindikalak deituta elkarretaratzea egin zuten Ikaztegietako Hertell kooperatibaren aurrean.

Kolore beltzarekin amaitu zela urtea, eta kolorerik ez dela aldatu urtea hastearekin batera gogorarazi zuen ELA sindikatu-ko ordezkariak: «Hiru hildako izan dira Euskal Herrian, eta lehenengoa Gipuzkoan, eta zoritarrez hildako oso gaztea da hemen Ikaztegietan gertatutakoa. Beti salatzen dugu berdina, baina ez gara nekatuko hori salatzen». Euskal lan merkaturuan «pairatzen den prekarietatea» horrelako lan istripuen «ondorio zuzena» dela diote: «eta instituzioei eta patronalari eskatzen dioguna da behingoz jar ditzatela mahai gainean jarri behar diren baliabide guztiak zorigaitzeko lakra honekin amaitzeko».

Bestetik, LAB sindikatuak gehitu zuenez, «ezin dena onar-

tu da lanera etorri eta gure bizitza lanean galtzeko aukera edukitzea». Datu kezkarrietan jarri zuten azpimarra: «Datua oso-oso kezkarriak dira, eta urteak dira jada oso kezkarriak izaten ari direla, eta urte hasierak ere erakusten digu berdina izaten ari dela. Azpimarratuko genuke modu berdinean hiltzen den hirugarren langilea dela, hau da, altuera batetik eroritako istripu txar baten ondorioz». LAB sindikatutik ere eta administrazioari zuzenduz, «berehalako neurriak» hartzeko exijitu zioten, eta honelako ezbeharrak berriro gertatu ez daitezen, «altueran lan egiten duten langileen tzat prebentzio plana izatea», ezinbestekoa dela adierazi zuten.

GAZTEEN SALAKETA

Kontseilu Sozialistak deituta, ostiral iluntzean, Tolosako Trianguloa plazan elkartu ziren eskualdeko gazteak *Kapitalismoa hiltzailea* leloarekin, aurreko astean, Ikaztegietan, izandako lan heriotza salatzeke.

Abian da turismo bulego berria

Tolosako Plaza Zaharreko 10.ean dago kokatuta, eta turistei harrera hobe eta integralago bat ematea du helburu; eskualdeko marka turistiko berria ere sortu da

Imanol Garcia Landa Tolosa

Zabalik dago Tolosaldeko turismo bulego berria, eta ostiral eguerdian egin zuten inaugurazioa, eskualdeko hainbat udalen zein turismo eragileen ordezkariarekin. Turistentzat eskuragarriago izan dadin, Tolosako Andre Maria Plazatik Plaza Zaharrera lekualdatu da. Bisitarien harrera-esperientzia hobetzeko helburua du.

Aurreko bulegoak ez zituen behar bezala betetzen irisgarritasun irizpideak, eta Itourbask, Euskadiko turismo bulegoen sareko kide izateko baldintzak ere

justu betetzen zituen. Bulego berriak alor hauek hobetu ditu.

TURISTEN BEHARRETARA

Barrura begira, batik bat, instalazioak turisten egungo beharretara egokitu dira: autokontsulta gune digitala sortu da, bakoitzak dakarren gailu elektronikoak kargatzeko puntuekin. Bisitarien eskura izango den ukipen-pantailako ordenagailu bat eta informazioa hobeto komunikatzeko pantaila handi bat ere jarri dituzte.

Bestalde, arreta azkarreko eta arreta pertsonalizatuko guneak desberdindu dira. Itxura

aldetik ere badu hobekuntzarik. Abegikorra izan asmoz, lurraldearen izaera helaraztea bilatu da espazioen dekorazio berritzailearekin. Egurra, harriaren grisa eta landare berdeak erabili dira, hain zuzen, gure eskualdearen erakusgarri.


MARKETIN PLANA

Marketin Plana ere garatu da, eskualdearen posizionamendu turistiko definitzeko. Orain, estrategia hori jarraituz garatu beharreko ekintzak definitzea da asmoa. Marka turistiko berritzea izan da ekintza-planeari zehaztutako puntuetako bat.



zozketak

Atarikideentzat
bi sarrera bikoitz ditugu



ATARIA
BERTSO
JAIALDIA
2022

Urtarrilak 22, 18:00etan
Tolosako Leidorren.

Atarikideentzat
bi sarrera ditugu



Gu Primer!
antzezlan

Urtarrilak 21, 20:30ean
Tolosako Leidorren.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus



Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba
Elkartearen ohiko batzar nagusirako deialdia

EGUNA: 2022eko otsailaren 2an.

ORDUA: 17:00etan, lehenengo deialdian.

17:30ean, bigarren deialdian.

18:00etan, bigarren deialdian.

TOKIA: Uzturpe Ikastolan.

Eskola kirolaren beharra nabarmendu du udalak

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Udalak eskola kirolak haurren osasunean duen eragina azpimarratu du. Koronabirusaren seigarren olatuaren inguruan hartutako neurrietako bat eskola kirolaren etenaldia izan da eta udalak esan du horrek «ezinegona» sortu duela hainbat herritar eta eragilerengan. «Azken bi urtetan zehar askotan ikusi dugu haurrek jasaten dituztela neurririk gogorrenak eta halaxe gertatu da oraingoan ere», esan dute udal ordezkariak.

OSASUNA SUSTATZEKO

Osasun larrialdi egoeran egonda, udalaren ustez kontuan hartu behar dira osasuna sustatzen laguntzen duten jarduerak, hala nola eskola kirola. «Ohitura osasungarriak hartzea errazten du eta baita sozializatzeko alternatibak eskaini ere. Jarduera fisikoa ezinbestekoa da. Une honetan, ordea, debekatua daude kirol lehia ez profesional edo ez erdi-profesionalak eta eskola kiroleko jarduerak».

EH Bilduk Gasteizko ganberan legez besteko proposamena aurkeztu berri du, Lakuako gobernuari eskatzeko urtariletik aurrera eskola kirola berriro egiteko aukera eman dezan, burbuilak mantenduz.

Zizurkilgo Udalak ere eskakizun horrekin bat egin du, eskola kirola berriro ere martxan jarri dadin, «burbuilak mantenduz, espazio irekietan, aldundi, udal, klub eta federazioekin lankidetzan eta egoera epidemiologikoak eskatzen dituen neurriak bezet, klub irizpideak kontuan hartuz».

1.682 positibo atzeman dituzte eskualdean, azken astean

Hilaren 10etik 16ra 1.682 positibo atzeman ditu Osasun Sailak eskualdean, eta hilaren 3tik 9ra, 1.766 zenbazu zituen; EAEko 14 eguneko intzidentzia tasa 6.235era jaitsi da

Erredakzioa Tolosa

Osasun Sailak eguneratu ditu COVID-19ari lotutako datuak eta horien arabera urtarrilaren 12tik 16ra 59.534 positibo atzeman dituzte Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Horietatik 807 izan dira Tolosaldean, eta Gaztelu da azken egunetan positiborik atzeman ez duen eskualdeko herri bakarra. Dena den, 28 herriak daude gorrrian, intzidentzia tasa altuarekin. Intzidentzia tasa orokorra, Araba, Bizkai eta Gipuzkoakoa alegia, jaitsi egin da Osasun Sailaren azken txostenaren arabera eta 6.235,46koa da, aurreko txostenekoa baino 700 puntu baxuagoa.

Badirudi intzidentzia orokorraren jaitsiera urtarrilaren 11n iragarritako neurrien ondorio dela. Gotzone Sagardui Osasun sailburuak esan zuen protokolo berria ezarriko zuela, eta horri jarraiki proba diagnostiko gutxiago egiten dituzte orain; pasa den igandean 18.766 proba egin zituzten eta herenegun 9.820. Orain kalteberatzat jotzen diren kontaktu estuei baino ez zaie egiten proba diagnostikoa, hau da, 70 urtetik gorakoei, immunodeprimituei, haurdun dauden emakumei, txertoa jarrita ez dutenei eta gaixotasun kroniko moderatua-larria erregistratuta dutenei. Pertsona horiek proba diagnostikoa eskatu behar dute, kontaktu estu diren aldetik.

Adinekoen egoitzako egoerari erreparatuta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu pasa den osteguneko datuak eguneratu. Ho-



COVID ziurtagiriaren kontrako mobilizazioa egin zuten larunbatean, Tolosan. N.R.A.

rien arabera, Tolosako Uzturre egoitzan 25 kasu aktibo zeuden, 14 kasu berri atzeman zituzten eta bi ziren sendatutako egoiliarak. Iurreamendi egoitzan aldez, 6 kasu zituzten aktibo eta 3 positibo berri atzeman zituzten. Villabonako Santiago egoitzan kasu aktibo bakarra zuten, eta positibo berri bat.

COVID ZIURTAGIRIAREN KONTRA
Larunbatean Tolosako Trianguloa plaza bete zen pankartaz eta jendez COVID ziurtagiriaren kontra egiteko. Guztiak Bizitza plataformak deituta elkartziren eta erreibindikazio bat baino gehiago bazuten jendartean zabalatzeko, guztiak *Gune askeak denontzat*; COVID paserik ez le-

loaren bueltakoak ziren. «Pasaportea eskatzea berez koakzio delitua da, Kode Penalak jasotzen duen bezala. Eusko Jaurlaritza pertsonak koakzionatzen ari da, eta beraz, COVID-19 botika esperimentalak injektatu ala ez erabakitzeko herritarren hautatzeko askatasuna mugatzen ari da», salatu zuten.

Honela, Bizitza plataformak honakoa ere gehitu zuen, «pasaportea ezartzea zigor bat da uneko legediak babesten duen ez inokulatzeko eskubidea erabiltzen dutenen kontra». Osasun pasaportea herritar bati eskatzen zaionean kalteturik geratu daitezkeen oinarritzko eskubide konstituzionalak zerrendatu zituzten Bizitza plataformako ki-

deek: «14, 15, 16, 17 eta 18 artikulak: diskriminazio ezari eta tratu berdintasunari, osotasun fisiko eta moralari, askatasun politikoei, askatasun pertsonalari, ohoreari eta intimitateari buruzkoak».

Tolosan bildu ziren herritarren ustez «COVID-19 botika hartzen duten pertsonak ez daude immunizaturik eta kutsatu dezakete ez inokulatzeko erabaki dutenek bezalaxe». Bizitza plataformaren baieztapen honi jarraiki, COVID ziurtagiria bertan behera uzteko deia egin zuten; gogoratuz guztion dela toki publikoetara sartzeko eskubidea: «Gure herriko tabernak guztionak dira; [...] denda eta komertzio txikiek autonomia ematen digute; [...] kirola egitea eta kultur jardueretara joatea biltzeko eta gizarteratzeko bidea dira».

OSAKIDETZAREN «UTZIKERIA»

Pandemiak hainbat egoera azalarazi edo muturreratu ditu eta horietako bat da lehen arretaren egoerarena. Hori dela eta, sindikatuek protestak egin zituzten pasa den ostegunetan herrietako osasun etxeen aurrean, baita Tolosaldekoetan ere.

Osasun zerbitzuko lehen arreta «itolarran» dagoela salatu zuten eta Osakidetza neurriak hartzeko eskatu zioten. Osakidetza «gainkarga eta utzikeria» salatu zuten eta lehen arreta egoera larrian dagoela esan zuten. «Aurreko olatuaren bukaeran bota zituzten 4.000 langileak berri ere kontratatzeko» eskatu zuten.

ATARIA

BERTSO JAIALDIA

2022

SARRERAK

AGORTUTA

Oihana Iguaran

Maialen Lujanbio

Amets Arzallus

Andoni Egaña

Nerea Ibarzabal

Iker Zubeldia

Urtarrilak 22, larunbata,

18:00etan,

Tolosako Leidor antzokian

Gai jartzailea:

Amaia Agirre

Antolatzaileak:

Ataria

Harrituz

galtzaundi

Babeslea:

TOLOSA

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

16. jardunaldia

Otxartabe	3
Lauburu	3

Sailkapena

9. Lauburu Ibarra	21p
-------------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Lauburu Ibarra (9)

Mahastiak Labastida (16)

HIRUGARREN MAILA

16. jardunaldia

Gora	3
Laskorain	5
Tolosala - Kukuyaga (atzeratuta)	

Hurrengo jardunaldia

Laskorain (2) - Batzarre (10)

Aurrera de Vitoria (7) - Tolosala (9)

SENIOR MAILA

6. jardunaldia

Laskorain - Eskoriatza 5-3

8. jardunaldia

Eskoriatza 6

Ama TEEP Tolosala

Lauburu Ibarra - Antiguoko 1-4

Lazkao - Anoeta (atzeratuta)

Laskorain (atsedena)

Hurrengo jardunaldia

Laskorain (4) - Ama TEEP Tolosala (6)
(7. jardunaldikoa)

Laskorain (4) - Lazkao (7)

Anoeta (5) - Ordizia (1)

Idiazabal (8) - Lauburu Ibarra (9)

Ama TEEP Tolosala (6) (atsedena)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

6. jardunaldia

Tolosa CF Eskubaloia	27
Romo Broker Kirol	24

14. jardunaldia

Tolosa CF Eskubaloia	31
----------------------	----

Ilcapo Hondarribia	34
--------------------	----

Sailkapena

5. Tolosa CF Eskubaloia	17p
-------------------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Asfaltados Redondo (16)

Tolosa Eskubaloia (5)

1. LURRALDE TXAPELKETA

12. jardunaldia

Urnieta Quel Abogados	18
Tolosa Eskubaloia	19

Sailkapena

6. Tolosa CF Eskubaloia	14p
-------------------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Tolosa Eskubaloia (6) - Ereintza (3)

Futbola

HIRUGARREN MAILA

21. jardunaldia

Tolosa CF	0
Alaves B	3

Sailkapena

20. Tolosa CF	18p
---------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Aurrera (17) - Tolosa CF (20)

1. MAILA NAZIONALA

15. jardunaldia

Monte - Tolosa CF	2-1
-------------------	-----

Sailkapena

12. Tolosa CF	16p
---------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (12) - Nueva Montaña (14)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

16. jardunaldia

Tolosa CF - Ostadar	2-0
---------------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Amaiak Bat (12) - Tolosa CF (11)

GORENGO MAILA GIZONAK

17. jardunaldia

Tolosa CF	0
Zumaiaiko	0
Danena	2
Hernani	2
Billabona	1
Orioko	3

Hurrengo jardunaldia

Orioko (2) - Danena (9)

Urnieta (11) - Billabona (10)

Tolosa CF (3) (atsedena)

LEHEN MAILA ERREGIONALA

Igoera fasea, 2. jardunaldia

Intxurre	4
Lengokoak	2

GORENGO MAILA EMAKUMEAK

Kopa, 1. jardunaldia

Zestoa	4
Intxurre	0

Saskibaloia

GIZONEZKOEN LEHEN MAILA

9. jardunaldia

Tabirako Baque	52
Redline Mekanika TAKE	65

Sailkapena

1. Redline Mekanika TAKE	6-2
2. Tabirako Baque	6-2

Hurrengo jardunaldia

Disdira Bitxitegia ISB (6)

Redline Mekanika TAKE (1)

EMAKUMEZKOEN LEHEN MAILA

10. jardunaldia

TAKE (atsedena)

Sailkapena

5. TAKE	2-5
---------	-----

Hurrengo jardunaldia

Oiarso (4)

TAKE (5)



Otaño eta Arria V.ak, apustua adostu zuteneko unea. ATARIA

Arria V.a bueltan da berriro

Ibarran bizi den herri kirolari errezildarrak eta Otaño aizkolariak euren indarrak neurtuko dituzte apirilaren 24an egingo duten apustuan

Erredakzioa

Ibarran bizi den Xabier Orbego-zo Arria V.a errezildarrak herri kirolen lehia uzteko asmoa erakutsi zuen iaz, marka berezi bat egiteko saiakerarekin, baina berriro bueltan da.

Otaño aizkolariarekin adostu du apustua, Azpeitiko Mendizabal jatetxean: 20 kanaerdiko zeinek lehenago moztu. Bakoitzak 5.000 euro jarriko ditu, eta apirilaren 24an egingo dute, 12:00etan hasita, Azpeitiko zezen plazan. Aizkolari bakoitzak hamar kanaerdiko jarriko ditu.

TOLOSAN, BESTE APUSTU BAT

Arria V.a eta Otañoaren apustuaren aurretik, aizkoraren munduan beste lehia bat zehaztu zen,

Iker Vicente eta Mikel Larrañagaren artean, Tolosako Kantabriko tabernan. Apirilaren 2an edo 9an jokatu dute desafioa, 18:30ean hasita, eta kanaerdiko hamabi enbor zein oinbiko sei ebaki beharko dituzte bi aizkolariak.

Desafioa bota zionean, hamabi oinbiko ebakitzea proposatu zion Larrañagak Vicenteri, baina azkenean beste lan batzuk egingo dituzte apustuaren egunean. Egurrak nork jarri ere eztabaidarako gaia izan zen, baina hori ere adostu zuten, eta bi kirolariak izango dute horren ardura. Zehazki, Vicentek hamar kanaerdiko eramango ditu, eta Larrañagak bi kanaerdiko eta sei oinbiko. Kirolari bakoitzak 7.000 euro jarri ditu jokoan.

Hilberriak eta urteurrenak



Tomas Telleria Alustiza

Zuk emandakoa gurekin gelditzen da



Segurako Udala

SEGURAn, 2022ko urtarilaren 18a.



Jose Luis Vega Gonzalez

- Goian bego -

...Me voy por el camino de la noche, dejando que me alumbren las estrellas....

IKUSI ARTE, LAGUNA,
ETZAITUT AHANTZI;
HEL BEKIZU NIGANIK,
ZERURAT GORAINZI.
ZUR'ONDOAN JARTZERAT,
BERTZERIK EZ UTZI;
NI HORRARAKO BAINAIZ,
BIHAR EDO ETZI.
(Xalbador)

Alaitasuna Errondaila-ren sendia

LEGAZPI, 2022ko urtarilaren 18an.



Jose Luis Ugartemendia Bizcarrondo

Unax ikaslearen aita

Laskorain ikastola

LASKORAIN
IKASTOLAKO
kideen izenean

TOLOSAn, 2022ko urtarilaren 18an.



Peña II.a eta Tolosa irabazle, asteburuko binakako jardunaldian

Baiko enpresako partidan, Peña II-Albisu izan dira irabazle Jaka-Mariezkurrena II bikoaren aurka, eta Aspekoan Ezkurdia-Tolosak irabazi diote Altuna III-Martija bikoari

Erredakzioa

Gero eta partida gutxiago falta dira ligaxka amaitzeko eta oraindik emozio handiak bizitzeko aukera izango da binakako txapelketan. Eskualdeko lau pilotariei dagokionez, Baiko enpresan Peña II-Albisu bikoak 13-22 irabazi diote Jaka-Mariezkurrena II bikoteari. Laugarren garaipena lortu dute, beraz, Peña II-Albisu eta orain bosgarren postuan daude sailkapenean. Jaka-Mariezkurrena II bikoa, berriz, hiru garaipenekin dago eta zazpigarren postuan daude.

Aspe enpresako eskualdeko bi pilotariak euren aurka jokatu zuten, eta Tolosak eraman zuen garaipena. Ezkurdia-ekin batera 18-22 irabazi zion Altuna III-Martija bikoari. Ezkurdia-Tolosa bikoteak bigarren garaipena lortu dute eta azken postuan jarraitzen dute sailkapenean. Altuna III-Martija bikoa laugarren postuan dago eta bost garaipen dituzte.

ELIZEGIK, BESTE GARAIPEN BAT

Promozio mailako binakako txapelketan, Elizegi eta bere aurrelari Bakaikoak maila onean jarraitzen dute. Azken partida ere irabazi dute, 22-13 Alberdi-Uriondo bikoaren aurka, eta berderatzi jardunaldietan zortzi ga-



ENEKO MAIZ, TXAPELDUN

Eneko Maizek irabazi du Trinketeko Klubaren Arteko Gipuzkoako Txapelketa, lehen mailan (Irudian, goian eta ezkerrean). Irurako Ametsa trinketean jokatu zuen finala, larunbatean, eta 40-19 irabazi zion EPLE elkarteko Ibon Tabernaren aurka. Jaialdian, bigarren mailan, Mundarroko John Linaresek 40-23 irabazi zion Azkoitia elkarteko Iñaki Azkoitiari. GEPE

raipen lortu dituzte. Beraz, sailkapenaren buru jarraitzen dute beste astebetez.

BENGOETXEA VIAREN AGURRA

Baiko Pilota enpresak Oinatz Bengoetxea pilotari leitzarrari ez dio hitzarmena luzatu, eta bere azken partida jokatu bitartean, hainbat pilotalekutan agurreko partidak jokatzen ari da. Tolosako Beotibar pilotalekuan ere

agurreko partida jokatuko du datorren astelehenean, hilaren 24an. Jaialdia 16:30ean hasiko da eta bigarren partida izango da agurrekoa; leitzarrak Albisurenkin batera jokatu du, eta aurkari Altuna III.a eta Bikuña izango ditu. Lehen partidan promozio mailako txapelketako neurketa jokatuko da, Alberdi-Uriondo eta Larrazabal-Salaverri II bikoiten artean.

Gizonezkoak finalera, eta emakumezkoak oraingoz hirugarren

Sokotirako bi jardunaldi jokatu dira igandean, Bilbon; gizezkoen taldeak 640 kiloko mailan parte hartu du eta emakumezkoen taldeak 540 kiloko mailan

Erredakzioa Ibarra

Aurrera doaz pixkana zortziko sokatira txapelketak, eta igandean Ibarra bi talde izan ziren lehian, Bilboko Casilla kiroldegian. Gizonezkoetan 640 kiloko mailan bigarren jardunaldia izan zuten eta finalerako txartela lortu zuten. Emakumezkoetan 540 kiloko mailan lehen jardunaldia jokatu zuten eta Ibarra hirugarren postua lortu zuen.

Igandeko saioan, gizezkoen taldeak bigarren postua lortu zuen, Beti Gazteren atzetik, lehenengo jardunaldian gertatu zen moduan. Beraz, erraz pasa da finalera Ibarra zortzikoa. Guztira zazpi talde aritu dira lehian eta horietatik sei pasatzen ziren finalera. Txantrea geratu da azken saio horretatik kanpo, lehen jardunaldian ezin izan baitzuen parte hartu eta gero bigarrenengoan seigarren postua bakarrik lortu zuelako. Hori horrela, Beti Gazte eta Ibarra taldeez gain, finalean Amaur, Napurrak, Zuraide eta Abadiño izango dira. Finala Berangoko Kirol Gunean jokatuko da, urtarrilaren 22an, 17:00etatik aurrera.

Emakumezkoen kasuan, lehen jardunaldia izan dute 540 kilotan, eta baita zortziko txapel-

ketetan. Hirugarren postua lortu zuten ibartarrek, 4 puntu lortuz, eta bere aurretik Gazte eta Beti Gazte geratu ziren, biak 5,5 punturekin. Laugarren Badaiotz izan zen, 3 punturekin, eta ondoren Abadiño A eta Abadiño B, hurrenez hurren, bi eta puntu bakarrarekin. Guztira hiru jardunalditan lehiatuko dira sei taldeak denek denen aurka, eta hiru jardunalditako puntuen batuketak erabakiko du zein taldek jantziko duen aurtengo 540 kiloko txapela. Hurrengo jardunaldia Berangon izango dute ere, gizezkoekin batera.

Egutegiari begiratuz gero, urtarrilaren 22ko jardunaldiaren ondoren, urtarrilaren 29an izango dute hurrengo tiralariek, eta Bakion jokatuko da. Emakumezkoen 540 kiloko mailako hirugarren eta azken jardunaldia jokatuko da eta gizezkoen 600 kiloko mailako lehen jardunaldia. Ondoren, otsailaren 5ean, Erandion, 600 kiloko bigarren jardunaldia, eta emakumezkoen 500 kiloko lehen jardunaldia. Beste hiru jardunaldi jokatuko dira orotara, eta horietako bat Ibarra jokatuko da, otsailaren 19koa, eta bertan 580 kiloko misto txapelketaren finala izango da jokoan.

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzetan DOAN

ESKELAK
ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:00ak arte
hartzen ditugu



**Iban
Carballes
Muñoa**

- Goian bego -

*Urtea hasi berri dugu
triste eta zorigaitzez bete
igandean uste gabe jasoaz
joan zarenaren albisteak,
mendizale amorratua zinen
eta hark amaitu dizu bidea
asko nabaritu dugu Iban
lankideok zure hutsunea.*

Zure lankideak.



ELDUAIN, 2022ko urtarrilaren 18an.



**Fermin
Caminos Garcia**

*Gero arte Fermin!!
Ikusi arte!!*

Zainduitzek hire ardi hoik!

Laneko launek.



BERASTEGI, 2022ko urtarrilaren 18an.



ASTEARTEA, 2022KO URTARRILAK 18
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletze
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 18

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Irakurketa kluba gaztelaniaz: *El curioso incidente del perro a medianoche* (Mark Haddon). Liburutegian, 18:00etan.

Berastegi. Oinez Berastegi, plazatik abiatuta, 10:30ean. Ondoren. Hamaitakakoa.

Irura. Herriko hondakinen eboluzio-ari buruzko informazioa eta neurri berrien berri emango dute, gaztelaniaz, 18:00etan.

Zizurkil. Miñan liburua aztertuko dute Oihana Iguarnek gidatuta. Amets Arzallus idazlea bertan izango da. Liburutegian, 18:00etan.

Alegia. Intxurre elkartearen 50 urteetako historia jasotzen duen dokumentala, zineman, 18:30ean.

Ibarra. Genero-indarkeria kasu baten aurrean nola jokatu jakiteko tailerra, plazako gune estalian, 19:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina.
15:00. Letren errepublika. Literaturari buruzko saioa, Jon Mirandarekin.
16:00. Zebraidea. Arroza sareko irratien artean eginiko magazina.

28 KANALA

08:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosalde
13:30. Gaurkoan Tolosalde
19:00. Elkarriketap
21:30. Gaurkoan Tolosalde
22:00. KUP taldearen kontzertua

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Oscar Etxe-beste Etxarri. Gernikako Arborearen Lorategiak, 3. 943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro polita izango dugu. Egunean zehar behe-hodei batzuk agertuko zaizkigu, baina hauek ez dute inolako ondorioz ekarriko eta eguraldi lasaia izango dugu. Haizeak aldakor joko du, arratsaldean ipar-ekialdeko ukitu batekin eta tenperatura hotza izango da, nekez gaindituko duela 9-10 gradu langa.

Bihar. Giro motelagoa izango dugu. Goizean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, baina giro argia izango dugu. Egurditik aurrera hodeiak ugaritu egingo dira, zerua nahiko estalirik utziko dute eta ez da baztertzeko orduan euri txiki modura zertxobait bustitzea. Haizeak aldakor joko du goizean eta iparraldetik arratsaldean. Tenperaturan ez da aldaketarik emango, 9-10 graduan errendituko direlarik.

Tolosaldeko Ataria ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



BEDEINKAPENA JASO DUTE

Kristau egutegian San Anton eguna izan zen atzokoa, eta Berastegiko izen bereko ermitan hainbat herritar elkartziren, animalia eta guzti. Izan ere, ohiturari eusten jarraitzen dion herrietako bat da, eta beraz, meza ondoren, apaizak gerturatu ziren animaliak bedeinkatu zituen bana-bana. Hain justu, zazpi txakurrek jaso zuten bedeinkapena. Mezan ohiko errezoiez eta abestiez gain, apaizak San Antonen bizitza kontatu zien elizkoiei. ASIERIMAZ

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus - 107.6 fm -

Aurrematrikula
irekia
urtarrilaren
17tik 28ra

ikastolak
HEZKUNTZA ERALDATZEN

